



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

MEDIKUNTZA
ETA ERIZAINNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE MEDICINA
Y ENFERMERÍA

MIKROBIOLOGIA ETA OSASUNA MASTERRA

www.ehu.es

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Agerikoa da osasunaren ikuspegitik mikroorganismoek kezka sortzen dutela, beti ekarri dituztelako gizakien osasunerako erronka berriak: HIESA, tuberkulosia, paludismoa, gripearen arrisku pandemikoak, beste birus berri batzuk eta antibiotikoen erresistentzia dira agertzen edo berriz agertzen ari diren erronketako batzuk. Baina gero eta garrantzitsuagoa da ulertzea zein ondorio izan ditzaketen beste patologia batzuetan eta, osotara hartuta, baita gizakien osasuna mantentzeko ere. Ezin da ukatu oso garrantzitsua dela albaitaritzan, nekazaritzan eta elikaduran.

Ingurumenaren ikuspegitik, mikroorganismoak inplikatura daude lurreko nahiz uretako ekosistemen bilakaeran, elementuen ziklo biogeokimikoa mantentzen dutelako eta, ondorioz, karbonoa, nitrogenoa, fosforoa eta abar birziklatzen dituztelako. Mikrobiologia eta Osasuna Masterraren bidez Mikrobiologiari, Parasitologiari eta Immunologiari buruzko ezagutza eta gaitasun aurreratuak eman nahi zaizkie ikasleei, gero gizarteak ezagutzaren esparru horietan dituen beharriaz erantzuna emateko gai izan daitezen.

SARBIDEA

Gradua, lizentzia edo diploma Farmazian, Medikuntzan, Odontologian, Albaitaritzan, Erizaintzan, Fisioterapian, Elikaduran, Kimikan eta Biologian; eta Biomedikuntzaren eta Biozientzien, ingurumen-zientzien eta elikaduraren esparruan sartzen diren beste titulu batzuk ere.

Onartua izateko kontuan hartuko dira: curriculum (50%), ikasketa-espeditenteko batez besteko nota (25%), ingelesa (15%), beste merezimendu batzuk (hizkuntzak, etab.) (10%).

IRTEERA PROFESIONALAK

Mikrobiologiaren eta horri lotutako beste esparru batzuetan ikerketak egitea eta garatzea, erakunde publikoetan eta enpresa pribatuetan. Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia doktoregoan sartzeko aukera.

OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa). Zientzia eta Teknologia Fakultatea (Leioa) Farmazia Fakultatea (Vitoria-Gasteiz).
Irakaskuntza mota:	Eskolan bertakoa.
Hizkuntza:	Gaztelania.
Gutxi gorabeherako prezioa:	2.200-2.400 €
Egutegia:	Irailtik ekainera, goizez eta arratsaldez.

IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1

Nahitaezko Gaiak <hr/> 15 ECTS kreditu	Hautazko Gaiak <hr/> 27 ECTS kreditu	Proiektuak / Ikerketa-lanak <hr/> 18 ECTS kreditu	Guztira <hr/> 60 ECTS kreditu
--	--	---	----------------------------------

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

Nahitaezkoak:

- Laborategien akreditazioa eta normalkuntza eta arrisku biologikoaren kontrola.
- Mikrobiologiako informazio zientifikoaren kudeaketa eta komunikazioa.
- Mikrobiologiako metodo oinarrizkoak eta aurreratuek.

Hautazkoak:

- Antimikrobiarrak.
- Bakteriologia Medikoan izandako aurrerapenak.
- Mikologia Medikoan izandako aurrerapenak.
- Biologia Medikoan izandako aurrerapenak.
- Onddo mikroskopikoen biologia eta bere aplikazioaren garrantzia*.
- Lurzoru kutsatuen bioerremediazioa*.
- Infekzioaren epidemiologia.
- Infekzioa eta immunitatea.
- Alergia diagnostikatzeko eta alergenoko antzemateko laborategiko metodoak*.
- Mikrobiologia klinikoa: gaixotasun tropikal inportatuak.
- Elikagaien mikrobiologia.
- Mikrobioak eta klima aldaketa*.
- Mikroorganismoak eta ur sistemen kutsadura*.
- Bakterioen biziraupena*.
- Txertoak.
- Alergiaren zaintza eta ingurumen balorazioa*.
- Ingurumen biologia*.

* Ikasgai hauen eskaintza dago baimenaren menpe.

HARREMANETARAKO

Arduraduna: Miren Basaras Ibarzabal

Tel: 94 601 2852

Posta elektronikoa: miren.basaras@ehu.es

